



Txupinazoa gaur,
etzi antzerkia, ... ▶ 5

«Etsipenez» hartu dute gehienek ETAren su-etenaren haustura

AGIRIA ▶ «Negoziaketa prozesu batean aritzeko behar diren gutxieneko baldintzarik ez dira bete», dio erakunde armatuak

ERREAKZIOAK ▶ ETAren erabakiaren aurrean «kezka eta pena» agertu dute oro har eskualdeko eragile eta politikariek ▶ 2,3

E. EZEIZA



Nazioarteko Ingurumen Egunean, ekitaldi ugari

TOLOSALDEA ▶ Tolosan eta Zizurkilen umeak sentsibilizatzeko ekimenak egin zituzten, pailazoekin ▶ 4

LEITZA ▶

Euskal Selekzioaren aldeko eguna

Igandean ospatuko dute Leitza ▶ 7



IES Hernani BHI
A. Iturriaga - E. Labaka

A. ITURRIAGA Santa Barbara auzoa z/g - 20120 HERNANI - Tel.: 943 551188 FAXA: 943 552271
K. LABAKA Karmelo Labaka 7 - 0120 HERNANI - Tel.: 943 551958 FAXA: 943 330550
e-mail: institutua@hernanibhi.com www.hernanibhi.com




ELEKTRIZITATEA

Ekipo eta instalazio Elektrotknikoak (Erdi Maila)
Instalazio Elektrotknikoak (Goi Maila)

MEKANIKA

Mekanizazioa (Erdi Maila)
Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineazio mekanikoa)
(Goi Maila)

AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 1etik 7ra



POLITIKA ▶

«Etsipenez» jasotako albistea

ETAk su-eten iraunkorra hautsizat eman du gaur gauerdetik aurrera; Tolosaldeko eta Leitzaldeko politikari, eragile zein norbanakoen iritzia bildu ditu HITZAK



ETAko hiru kide, su-eten iraunkorraren iragarpena egin zutenean, 2006ko martxoan. ETB

ETA-REN AGIRIA ▶

«ETAk, nazio askapenerako euskal erakunde sozialista iraultzaileak, ondorengoaren berri eman nahi die euskal herritarrei:

Argipen garaiki dira. Euskal Herriak egungo zatiketa instituzionala gainditu eta Estatu Independiente bat eraikitzeko urratsak eman nahi ditu. Milaka boza aldaketa politiko eta sozialaren alde, milaka ahots herri honen etorkizunaren alde. ETAk ere herri honen askapen prozesuaren alde egiten du. Prozesu horren amaiera dudarik gabe Euskal Herria izeneko Estatu Independiente bat izango da, baina horretara iristeko, Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa barnebiltzen dituen marko bakar batetik eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa bilduko dituen beste bat lortu beharko dira. Finean, zazpiak bat, gure herriaren geroa eraiki

dezagun. Argi baitago orain arteko sasi irtenbideek ez garamatzatela inora. Etorkizuna gure esku dago eta lortuko dugu.

Mozorroak kendu dira. Zapateroren talantea alderdiak eta herritarrak eskubiderik gabe uzten dituen faxismoan bihurtu da. Baina ez dira bakarrik. Iraina hitzetik hortzera, diru gosea ase ezinik ari diren PNVko burukideei ere estalkia erori zaie. Herrien askatasunak, zorikarrez, traizioa du sarritan etsai. Euskal Herriaren defentsan, geroaren eraikitzean, erabaki irmoak hartu behar diren bakoitzean iruzur egin izan dute. Oraingoan, ordea, herritarrek ez diete espainolismoaren babespean herri honen sufrimendua elikatzen jarraitzeko beke zuririk eman. Herri eskubideen zampaketen arduradunak baizik ez dituzte 'seduzitu', ez

demokrazian eta askatasunean bizi nahi dugun euskaldunok.

Herritarrok demokrazia eza pairatzen dugu. Euskal Herriaren aurkako erasoak desagertu ordez, areagotzen eta larriagotzen ari dira. Milaka herritar eta prozesuaren aktibo nagusia den ezker abertzalea hauteskunde anti-demokratiko hauetatik at utzi ditu Espainiako Justiziak. Egun Euskal Herrian bizi dugun egoera salbuespen egoera da. Igaro berri diren hauteskundeak zilegitasunik gabekoak dira. ETAk eskaini ekintza armatuen etenaldi iraunkorrari, abiloketa, tortura eta mota guztietako jazarpenarekin erantzun dio Espainiako Gobernuak. Negoziaiketa prozesu batean aritzeko behar diren baldintza demokratiko minimorik ez dago.

Haatik, Euskal Herriaren oraina eta geroa bermatzeko gako

politikoak begien bistan ditugu: autodeterminazioa eta lurraldetasuna, eta milaka eta milaka herritarrek erein berri duten haziak uzta oparoa ekarriko dio gure herriari.

Anartean, armaz erasotua den herria, armaz defendatzeko erabakia berresten dugu.

Herritar orori demokrazia faltsu eta ustel honi oldartzera eta Euskal Herria izeneko Estatu libro baten eraikuntzan lanean tinko murgiltzera dei egiten diogu. Norbera bere eremuan eta ahale arabera. Eskuzabal eta elkarren ondoan.

Azkenik, ETAk su-etenaldi iraunkorra bertan behera uzten duela eta 2007ko ekainaren 6ko 00:00etatik aurrera Euskal Herriaren defentsan fronte guztietan aritzeko erabakia hartu duela adierazi nahi du». Euskal Herrian, 2007ko ekainean

ERREDAKZIOA

ETAk su-eten iraunkorra hautsizat jotzen zuela iragarri zuen herenegun gauerdian. Berriara bidalitako agiriaren bitartez. Hausturaren «errudun» izendatzen zituen, bate-tik, Espainiako presidente Jose Luis Rodriguez Zapatero «bere talantea alderdiak eta herritarrak eskubiderik gabe uzten dituen faxismoan» bihurtu delako. Eta, bestetik, EAJ, «bere espainolismo eta diru goseagatik».

Iragarpenak sentimendu ezberdinak piztu ditu eskualdeko politikari eta gizarte eragileetan. «Etsipena, amorrua, pena...» bezalakoak, besteak beste. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK adierazpenak bildu ditu.

OLATZ PEON

EAJ

«Ibarretxeren estatutu politikoan dago gakoa»



«Esnatu eta irratia piztuta enteratu naiz berriaz: erortzea bezala izan da, kolpe handia, kezka sortu didana.

Atzera pausoa izan da. Iraganeko argazkira sartzea bezala. Prozesua hasita itxaropena duzu, oztopo handiak daudela ikusita ere. Irakurketa politikoa egiteko orduan azterketa sakonak egin behar dira. Anotako diskurtsoan itxaropenarentzako lekua ikusi genuen, baina argi dago ETAk ez duela lekuri uzten. Oinarria lehendakariaren estatutu politikoan ikusten dut. Hortik jarraituz gizarteak baztertuko du ETA. Jendea jadanik nekatuta, aspertuta dago, gaude, bai alde batekoak eta baita besteak ere. Denon nahia da bake prozesu horretara aliegatzea».

ANTTON IZAGIRRE

EZKER ABERTZALEA

«Prozesua jarraitu behar da elkarrizketarekin»



«Tolosako ezker abertzalearen ordezkari bezala, gure jarrera orain arte prozesuaren inguruan bildu diren indarrak mantentzearena da; ulertzen dugulako orain urtebete genituen itxaropenak ez direla bete, bake eta normalizazioaren bila lanean jarraitu behar dela eta lehen zegoen ilusioa bueltatu. Prozesu politiko-

KRONOLOGIA ▶

Guztira 440 egun iraun ditu iazko martxoaren 22an ETAK iragarri zuen su-etenak. Hauxe da epe horretako gertakariak, labor-labor:

2006

Martxoak 22. ETAK su-etena iragarri zuen.
Martxoak 29. Arnaldo Otegi 10 egun egin zituen espetxean.
Apirilak 1. Milaka lagun bildu ziren Bilbon manifestazioan, *Konponbidearen alde*.
Apirilak 8. Ahotsak plataforma aurkeztu zuten, ideologia desberdinetako emakumeak

biltzen zituen. Bertan, besteak beste, Onintza Lasa tolosarra dago.
Ekainak 29. Jose Luis Rodriguez Zapatero Espainiako presidentea ETArekin elkarriketarako hasiko dituela iragarri zuen.
Uztailak 6. Lopez eta Otegi bildu ziren, baina PSN ez da sartzen elkarriketara prozesuan.
Abuztuak 7. Iñaki De Juanak lehen gose greba hasi zuen.
Abuztua. ETAK «egoera krisian» dagoela esan zuen agiri batean.
Iraila. Ezker abertzaleko,

EAJko eta alderdi sozialistako talde negoziatzaileak isilpeko bileretan hasi ziren. Azaroan eten zituzten.
Urriak 24. 350 pistola lapurtu zituzten Nimesen ondoan.
Urriak 25. Bakearen aldeko ebazpena onartu zen Europako Parlamentuan.
Azaroak 2. De Juanak bigarren gose greba hasi zuen.
Azaroa. ETAK prozesua eteteko arriskua azaldu zuen *Zutaben*.
Azaroak 29. ETAKo ustezko hiru kide atxilotu zituzten Frantzia eta beste hiru handik hiru egunerako.

Abendua. ETAK eta Espainiako gobernuak bilera egin zuten.
Abenduak 30. ETAK bonbauto bat lehertarazi zuen Madrilo Barajasko aireportuko T-4ko aparkalekuan. Bi lagun hil zituen.
2007
Urtarrilak 9. Garikoitz Etxeberria lizartzarra atxilotu zuten, Asier Larrinaga bilbotarrarekin batera, Azkainen etakide izatea leporatuta. Ertzaintzak Atxondoko eta Zornotzako lehergailu gordelekuetan lotu

zituen biak. Egun berean, Ertzaintza miaketak egiten aritu zen Garikoitz Etxeberriaren etxebizitzan, Lizartzan.
Urtarrilak 10. ETAK su-etena eusten ziola jakinarazi zuen, Batasunak 2 egun lehenago eskatu eta gero. Zapaterok prozesua hautsitzat jo zuen.
Urtarrilak 30. Frantziako Pabeko Apelazio Auzitegiak Garikoitz Etxeberria eta Asier Larrinaga Espainiaren esku utzi zuen, euroagindua betez.
Apirila-maiatza. ASren zerrenda guztiak eta EAE-ANVren 133 zerrendaren baliogabetzeak baldintzatu zuen kapaina.

aren alternatiba bakarra zera da: prozesuarekin jarraitzea elkarriketaren bidetik».

ONINTZA LASA

EA

«ETAK bizkarra eman dio gizaritari»



«Goizean goiz jakin nuen, egunero bezala egunkariak irakurtzen ari nintzela. Penaz hartu dut berria, pena eta amorraren arteko nahasketa izan da. Era berean, ez dela horrela geldituko eta aurrera egin beharko dugula pentsatu dut. Lehenik eta behin, argi eduki behar dute, politikarekin ez bada ez dagoela konponbiderik, hori ez da bidea, armak ez dira gailenduko, izan ere, urtetan ez gaitu inora eman bide horrek. Politika da bidea. Ez daukate eskubiderik gizaritearen gehiengoak bakea eskatzen duenean, beraiek horri bizkarra ematea. Gizaritari bizkarra eman diote, beraz. Konponbiderako formula bakarra elkarriketarena da, alderdien akordioarena. Zailtasun handiak izan arren, etsi gabe jarraitu behar dugu bide horretatik».

OSCAR RENEDO

PSE-EE

«Abenduaren 30ean hautsi zen su-etena»



«Goizean jaiki eta telebista piztu dut albisteak jakiteko, eta orduan jakin dut. Honekin ikusten da ez dutela baieztatzen da eta berriro ere baieztatzen da ez dutela herri honekiko errespeturik. Gobernuak orain arte nahikoa eta gehiagi egin du eta etorri behar dena beraien eskutik etorri beharko da. Orain erakutsi dute arrazoi genuela ETAre-

kin ezin zela fidatu esaten genuenean. Izugarriko akatsa egin dute, nahastu egin dira, eta konturatuko dira herritarren erantzuna ikusi eta gero gaizki egin dutela».

ANTTON KARRERA

EB-ARALAR

«Udalak bakean osatetik urrun gaude»



«Hauteskundeak igaro ondoren, nahi edo adostasun bat bazegoen zerrenda hautatuenak izan direnak errespetatzeko. Orain, ordea, ez dakigu zer gertatuko den, honek ez baitu lagunduko horretan. Udal horiek bakean osatzeko, normalizazio egoera batetik urrun gaude».

INAKI IRAZABALBEITIA

EB-ARALAR

«Herriaren borondateari muzin egin dio ETAK»



«Goizean kioskora joan naizenean egunkariak erostera jakin dut. Lehen erreakzioa etsipena eta haserrea izan dira, etsipena bi urte egin dugulako atzera egoera politikoan eta haserrea ETAK herri honen borondate nagusiari muzin egin diolako berriz ere. Oso berri txarra da bai euskal gizarite osoarentzat, bereziki Euskal Herriaren Euskal Herriaren erabakitze eskubidean sinisten dugunontzat. ETAK komunikatuan bestela badio ere, su-etenen haustu atzerapausoa da herri honen autodeterminazioaren bidean. Akats larria da. Bake-prozesua zulora bota du eta, gainera, beste bati ekiteko baldintzak zailagotu egin ditu, parteen arteko konfidantza guztiz urratuta dagoelako. Elkarriketarako bideak bilatu

behar dira, horretan oinarritu behar delako euskal gatazkaren konponketa. Une honetan, ETARI exijitu behar zaio behinbetiko baldintzarik gabeko su-etena aldarrika dezan eta herri honen gehiengo nagusiaren eskaerari jaramon egin diezaión. Hori gabe nekez abiatuko da prozesu berririk».

PATXI ZABALETA

NA-BAI

«Baldintzarik gabeko su-etena nahi dugu»



«Alde bakarreko, behin betiko eta baldintzarik gabeko su-etena eskatzen diogu ETARI Nafarroa Bairen izenean. Nafarrek adierazi duten aldarrikaren borondatearen kontra ez dezatela agiria politzikoki baliatu».

JOXE MARI ITURRALDE

IDAZLEA

«Gizateriak kale egin du, animalien pare»



«Herenegun gauean irrartian azken orduan entzun nuen. Nazka eta tristura sentitu dut: azkenaldian sumatzen zen baina itxaropena duzu eta ez duzu espero. Konfirmatu denean, nazka etortzen zait burura: biziarekin jotzen ari dira, eta gizaritean balio gehien duena bizia da. Legeak gaizki egozongo dira, baina norbaitek erabakitzea biziak kenduko dituela esaten duenean, gizariteak kale egin duela ikusten da: animalien pare jartzen gara. Halako erreakzio ez logiko baten aurrean ezin da logika aplikatu. Arrazoiak ez zaizkit interesatzen, inporta zaidana jendeari bizia kentzeko prest daudela esan dutela. Ez dakit zein bide jarraitu behar den hau konpon-

tzeko. Bide politikotik ere ez dakit soluzionatuko den; egia esan, ez dut ezer onik espero. Erabat etsita nago, tunel batean sartuta, eta argirik ez dut ikusten».

CHELO ROMEO

EAJ

«Akordio berri batera iritsi beharko lukete»



«Telebistan ikusi dut albiste goizeko lehen orduan, 07:00ak inguruan. Izan dudan erreakzioa txarra izan da, etsipena esango nuke. Tristea iruditzen zait. Bi aldeek jakingo dute zer gertatu den. Negoziaketa gaizki zihoala esaten zuten baina nire uestez bi aldeek jarri behar dituzte gauzak euren aldetik aurrera egiteko. Herritar naizen heinean, irakurketa txarra egiten dut, etsipenez bete. Denen onerako berriz hasi beharko lukete negoziaketan. Modu batera edo bestera akordio berri batera iritsi beharko luketela iruditzen zait».

RAMON IRAZU

ELA

«Duela 10-15 urteko egoera berean gaude»

«Tristura handia sentitu dut berria jakin dudanean. Aurre-rago irakurketa politikoak etorriko lirake. Guk, ELA sindikatua bezala, beti esan izan dugu borroka armatua sobe-ran dagoela. Duela urte bat itxaropena ireki zen su-etena-rekin, eta berriro duela 10-15 urte ginen eskenatoki berean gaude, hau da, lur jota. Prozesua hasi zenetik ELA beti egon da Lizarra-Garazin, baina azken diseinu honetan ez du sinetsi. Dena dela, gaurko Bilbon deitu dugun elkarretaratzean gure jarrera gehiago sakonduko dugu».

JON IJURKO

ETXERAT

«Inpotentzia eta ezintasuna sentitu dut»

«Goizean egunkaria irakurtze-arekin batera jakin dut ETAK hautsitzat eman duela su-eten iraunkorra, eta inpotentzia eta ezintasuna sentitu dut aldi be-rean. Estatuak eta alderdiek ez dute bere gain hartu konponbi-dea. Estatuaren inposizioak eta biolentziak jarraitzen zuten bitartean arrisku hau zegoen. Zail da ulertzeko zergatik ez diren mahai batean jarri hau guztia konpontzeko. Ez da gus-tura jasotzeko moduko albiste-a izan. Gure aldetik Etxerat bezala, orain arte su-eten ga-raian izan arren guk ez dugula zuen baina nire uestez bi alde-ek jarri behar dituzte gauzak euren aldetik aurrera egiteko. Herritar naizen heinean, irakurketa txarra egiten dut, etsi-penez bete. Denen onerako berriz hasi beharko lukete negoziaketan. Modu batera edo bestera akordio berri batera iritsi beharko luketela irudi-tzen zait».

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. «ETAK su-etena iraunkorra hautsitzat eman du. 440 egun iraun du, izan ere, pasa den urteko martxoaren 22an iragarri zuen su-etena. Zer hausnarketa egiten duzu gaiaren inguruan?»; «Hauteskundeetan izandako emaitzen inguruan zein buruzagie egiten duzu?»; «Hauk dira proposatzen dizkizugun gaietako batzuk. Eman zure iritzia gure webgunean! ▶

TOLOSA ▶

**Bizikidetza
planeko emaitzak
aurkezteko bilera**

Gaur, bizikidetza inguruan ikasturte osoan Hirukideko-ek egin duten lana gurasoei aurkeztuko diete. Bilera, 18:30ean izango da, Hirukide Jesuitinetan. Eusko Jaurlari-tzak gai honen inguruan aurren abiarazitako proiektuan parte hartu dute Tolosakoek.

TOLOSA ▶

**Udaberriko
belaunaldien
bazkaria 16an**

Udaberri dantza taldearen 50. urteurrena ospatzeko ekitaldien baitan, hilaren 16an, Udaberriko belaunaldien kalejira eta bazkaria egingo dituzte. Azken hone-tara joateko sarrerak salgai daude 5 euroren truke, Gari-kano zapatadendan, Kime-tzen eta Zunbeltz musika dendan. Doakoa izango da 12 urtetik beherakoentzat.

TOLOSA ▶

**Saskibalo
teknifikaziorako
jardunaldiak**

Hilaren 10ean, 10:00etan Usabal kiroldegiko kantuan, saskibalo teknifikaziorako beste jardunaldi bat egingo dute. Jardunaldi hau dato-rreren urtean mini eta infantil mailako lehen urtean ariko diren mutilentzat eta infantil eta kadete mailan jokatu-ko duten nesKentzat izango da.

TOLOSA ▶

**Sanjoanetako
futbol txapelketan
izen-ematea**

Hilaren 28an hasi eta lau egunetan XIX. San Juan areto futboleko txapelketa jokatu-ko da. Izen-ematea Shanti ki-rolak dendan egin daiteke hi-laren 23a baino lehen.

iragarki laburrak ▶**SALGAI**

Etxebizitza. Alegian, 120 m²ko pisua + ganbara salgai; 3 logela, 2 bainugela, egongela eta sukalde ederrak, hegoaldera begira dagoen trastelekudun balkoia. 655 73 02 39.

NATURA ▶



Manifestua. Pirritx eta Porrotx pailazoek irakurri zuten atzo goizean. E. EZEIZA



Berdez. Kolore honetako nikiak jantzita atera ziren kalera gazteboak. E. EZEIZA



Erantzuna. Zizurkilgo alkatea hiru eskoletan izan zen. HITZA



Ipuin kontalaria. Haurrei ipuinak kontatu eta kometat egiten erakutsi zieten Errotako parkean. E. EZEIZA

Berdez jantzita ingurumen egunean

Tolosan eta Zizurkilgo gazteboak kontzientziazteko hainbat ekitaldi egin zituzten egun guztian zehar

ESTI EZEIZA

Atzo Nazioarteko Ingurumen Eguna ospatu zen mundu osoan. Hori dela eta, eskualdean ere zenbait ekintza berezi egin zituzten gazteboak. Bestalde, egun honen harira, aste honi Aste Berdea deitu diote, honen helburua herritarrek klima aldatetaz eta lurrraren berotze globalaz kontzientziaztea.

Atzo ospaturiko ekitaldien artean, Tolosan, 12:00etan Pirritx eta Porrotx pailazoek pun-tu umoretxua jarri, manifestu bat irakurri zieten Tolosako Le-

hen Hezkuntzako ikasleei. Ondoren, suzuria eta gozokiak bota zituzten. Saioari amaiera emateko, pailazoek, *Maitetut* abesti ezaguna kantatu eta dantzatu zuten. Gainera, antolatzaileek esan bezala, berdez jantzita atera ziren haurrak kalera.

Arratsaldean, Tolosako Haur Liburutegiak antolatuta, Errotako parkean, ipuin kontalaria eta literatura-kometen tailerra egin zuten. Jarduerkin jarraituz, gaur eta bihar, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko neska-mutiek Oria ibaiaren

bazterrak garbituko dituzte, Berazubiko zubian eta Napar-zubi inguruetan. Ekintzarako hezteaz gain, jarduerak lotura du Eskola Agenda 21eko ikas-leek ikasturte honetan landu duten gaiarekin: hondakinak.

Alkatearekin hizketan

Zizurkilgo alkatea den Maria Angeles Lazkano herriko hiru ikastetxeetan izan zen: San Mi-llan eskolan, Pedro Mari Otaño eskolan, eta Jesusen Bihotza ikastolan. Azken ikasturte honetan hiru ikastetxeetako ikas-

leek, hondakinen gaia ardatz hartuta, herria nola ikusten du-ten aztertu dute, ondoren, api-rilaren 20an Zizurkilgo udale-txeko pleno aretoan izan ziren eta zaborren inguruan zenbait gogoeta eta eskaera luzatu ziz-kieten udaletxeko alkate eta teknikariei. Atzo berriz, alkate-ak eskaera horiei erantzuna eman zien. Ikasleek arretza han-diz entzun eta beste hainbat galdera eta herri mailako proiektuei buruz galdetu zio-ten. Udalak, besteak beste, on-dorengo konpromisoak har-tzeko erabakia hartu zuen: Udaletxean paper berziklatua erabiltzea. Bestetik, langile guztiei Udaletxean egiten diren idazki guztiak bi aldeetatik in-primatzeko eskatzea, eta hori nola egiten den erakutsi.

Orain, ikastetxeetan egin den lan eta Lazkano alkatearen erantzuna Atxulondo kultur etxean antolatuta den erakusketan ikusgai da 10:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara.

ANOETA ▶ JAIK

Kukuaren zain

Gaur arratsaldean botako dute txupinazoa; herri antzerkia da ekitaldien artean arrakasta gehien izaten duenetako bat

IMANOL GARCIA

Lehenengo asteburua pasatu ondoren, Anoetako herriko jaiak hasiera ofiziala emango diete gaur arratsaldean. 19:00etan jaitsiko da kukua elizako kanpandorretik eta datorren igandera arte zer ikusi eta zer egin ugari izango da herrian.

Ekitaldien artean arrakasta handia izaten duenetako bat da ostiral gauean frontoian egiten den herri antzerkia. Herriarrak dira aktoreak eta horrek ikusleko ugari erakartzen du frontoira. Hasiera batean bertso antzerkia zena, azken urteotan antzerki bihurtu dute, bertsorik gabe. Aurtengoan 20 lagun inguruk hartuko dute parte, horietatik gehienak beste urteetan parte hartutakoak. 15 urteik hasi eta 50 urte inguru arteko herritarrek ariko dira.

Guztira lau esketz antzeztuko dituzte. Horietatik bi *Ama begira zazu* antzezlari ezagunetik aterata daude. Beste bat ekografia baten inguruan da eta laugarrena aktore beraiek idatzi dute eta kiroldegi berriaren gimnasioaren inguruan



Herri antzerkiko zenbait parte-hartzaile entsegu batean. I. GARCIA

izango da. Ohi denez, umorea izango da nagusi lau esketxetan. Emanaldiaren erdian atsedena egingo dute eta bertan, musika eskolako ikasleek saioa emango dute.

Aurten ez du inolrek zuzendari lana hartu eta guztien artean banatu dute ardura hori. «Giro oso ona» izaten dutela diote aktoreek antzerkia presatzerakoan. Frontoira joan aurretik Kuku elkartearen afaria

egiten dute eta ondoren, taula gainean eramango dituzten jantziak soinean, kalejira egiten dute frontoira. Afaria «ondo» etortzen zaiela diote. «Gustura egoten gara eta lotsa azkarrago pasatzen da denak elkarrekin egonik».

Beraz, lotsak afarian utzita, beste urte batez herritarrei barrea eragiteko prest joango dira ostiral gauean herriko aktoreak.

EGITARUA ▶

GAUR

18:55. Kukuaren etorrera iragarriko dute txalapartariak.
19:00. Jaiak hasiera plazan: txupinazoa, kukuaren jaitsiera kanpai hotsekin eta haurren danborrada.
19:30. Sardina jatea plazan.
23:00. Saioa eta Alabier trikitilariak plazan.

BIHAR

10:30-13:30. Ume eta gazteboentzako parkea herriko plazan.
16:00. Korri, Xaito eta Brinko pailazoak plazan.
17:00. Buruhandi eta erraldioen kalejira herriko txistulariekin. Herritarrei mozorrotzeko deia egiten diete.
19:00. Loatzeko musika eskolako kontzertua plazan.
21:00. Saiheski jatea frontoian.
23:00. Irma eta bere taldearen emanaldia plazan.

ETZI

11:00. Herriko jubilatuen arteko toka txapelketa plazan.
16:30. Buruhandi eta

erraldioen kalejira herriko txistulariekin.
18:00. Antzerki ikastaroko eta bertso eskolako partaideen emanaldia plazan.
19:00. Haur eta helduen play-back jaialdia plazan.
22:30. Herri antzerkia frontoian.
00:00. Izeba Pilarren llobak eta Skamachine taldeen kontzertua plazan.

EKAINAK 9, LARUNBATA

10:30-12:30 eta 15:30-17:30. Xake txapelketa kiroldegian.
11:00-13:00 eta 16:00-18:00. Pixoi tiroketako herri txapelketa Basagainen.
11:00. Gorritiren festibala: zezentxoak eta ponyak plazan.
12:15. Buruhandi eta erraldioen kalejira herriko txistulariekin.
12:30-14:00 eta 18:30-20:30. Erakusketak udaletxean: herriko artisten lanak, eskulanetako taldeak eginkoak eta festetako kartel lehiaketan aurkeztutako lanak. Ilandean ere irekita izango da.

15:30. Mus txapelketa herrikoentzat Kuku Elkartearen.
16:00. Txirindulari lasterketa, Mikel Oiarzabal eta Andoni Urkolaren omenez.
17:30. Txokolate jatea plazan.
18:00. Poxpolo Ta Konpainia.
18:00. Gazteen kalejira dantza eginez.
19:00. Tolosaldea bailarako Bakailaoa Saltsa Berdean IX. Lehiaketa.
21:00. Herri afaria frontoian.
23:30. Gazteen dantza plazan. Ondoren Kasu, Kloratita eta Pikutara taldeen kontzertua.

EKAINAK 10, IGANDEA

10:30. Txistularien kalejira.
10:30. Meza nagusia.
11:00. Oiarzungo Lartaun abesbatzaren saioa elizan.
12:00. Sagardo dastaketa.
17:00. Herri kirolak: Anoetako zaharrak gazteen aurka Arozetxea ondoko belazean. Ondoren, erromerian plazara.
18:30. Lizartzako Otsalar dantza taldearen saioa plazan.
20:00-21:00 eta 23:00 etatik aurrera. Kupela taldearen emanaldia plazan.

TOLOSA ▶ POLITIKA

Eskualdeko torturatuen asanblada Kultur Etxean

Elorrion egindako batzar nazionalan atera zituzten ondorioak jakinaraziko dituzte

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko torturatuen asanblada egingo dute gaur Tolosako Kultur Etxean, 19:30ean. Datorren astean Aitzondo-Beterrikoen txanda izango da. Asanbladaren helburuetako bat Elorrion (Bizkaia) abenduan burutu zuten torturatuen batzar nazionalen egindako hausnarketaren berri eman eta bertan ateratako ondorioak jakinaraztea da.

«Torturatuok izan behar genuela geure ahotsa eta horretarako torturatuok TATen partaide bilakatu behar genuela» izan zen Elorrion ateratako ondorioetako bat. Torturaren aurkako sare soziala eratu behar zutela ondorioztatu zuten ere eta eskualdeetan egiten ari diren asanbladen egitekoa horixe bera dela adierazi dute antolatzaileek. Elorrioko batzar nazionaletik ateratako ondorioak manifestu batean bildu zituzten eta orain aldarrikapen horiek jendarteratzea eta ahalik eta torturatu gehienekin konpartitzea nahi dute.

Gaur egingo duten asanbladaren beste helburua «torturari aurre egitea da. Beste inork ez beza guk jasan dugu-

na pasa, torturatu gehiago ez egotea lortu behar dugu». Horretarako «tortura ahalbideratzen eta babesten duen makinaria osoa deuseztu» behar dela adierazi dute asanbladaren bultzatzaileek.

Bide horretan, «aitortza lor-tzea» izanik beraien helburua, «ezinbestekoa da memoria historikoa berreskuratzea, horretarako torturatuon errola edo zentso nazionala osatuz. Datu abstraktu izatetik izen-abizenak osatuz». Torturatuok dituzten datuen arabera, 1978tik hona 7.000 torturatu baino gehiago daude. Frankismoan beste hainbeste izan daitezkeela pentsatzen dute. «Denak bildu behar ditugu. Komisariatuan eraildakoen omenaldiak antolatuz eta bultzatzea ere gure lana da», azaldu dute.

Ardurak eta erantzunkizuna argitu behar direla eta «inpunitatearekin» bukatu behar dutela esaten dute ere. Bestetik, «atxiloketen aurrean, torturapean egindako deklarazioetan oinarritutako epaiketen aurrean...», dinamika propioak bultzatu behar dituztela azaldu dute: «Salaketa publikoa egin eta presio talde bihurtu behar dugu».



Koldo Mitxelena Kulturunea
Urdaneta kalea 9 • 20006 DONOSTIA
Tel.: 943 11 28 93
programazioa@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

ERAKUSKETAK

Jose Ramon Amondarain:
Islaren isla



Apirilaren 19tik
ekainaren 16ra
Erakustaretoan

Isidoro Guinea
eta dekorazio arteak



Apirilaren 25etik
ekainaren 23ra
Ganbara aretoan

Erakusketen ordutegia
10:30-14:00 / 16:00-20:30
igande, astelehena eta jaiegunetan itxita
Bisitza gidatuak lortzeko deitu: 667 346 025

IBARRA ▶ JAIK

Egitarau oparoa aurkeztu dute Gazte Festetarako

Hilaren 15, 16 eta 17an antolatu ditu Gazte Asanbladak, autogestioa oinarri duela



Ibarrako Gaztetxetik igarotako belanaldi guztiekin familiako argazki atera zuten marboan egindako I.go Pipermin Egunean. HITZA

ASIER IMAZ

Ibarrako Gazte Asanbladak 2007ko Gazte Festen aurkezpena egin berri du. Urtero bezala, aurten ere ekainean izango dira gazteen festak, 15etik 17ra bitarte, hain zuzen ere.

Hiru egunetan zehar ekitaldi ugari antolatu dituzte herri guztian zehar. Gauetan berriz, kontzertuek izango dute protagonismoa herriko plazan zein Gaztetxean; aurten Etsaiak taldea eta EH Sukarra izango dira talderik azpimagarrienak. Hauekin batera Des-Kontrol eta Drindots-ek ere joko dute Ibarrako gazteek antolatzen dituzten jaietan. Hauekin batera, Atarrabiako Gas taldea ibiliko

da larunbatean plaza eta Gaztetxe inguruan giro bikaina jarriaz.

Txosnak ere ohiko lekuetan jarriko dituzte. Gazte Asanbladak jarriko duenaz gain, herriko beste hainbat taldek ere aukera bikaina izango dute diru sarrerak lortu ahal izateko.

«Maritxuri eskerrak»

Azken urteetan musutruk Gazte bazkaria prestatzen ibili den Maritxuri eskerrak eman nahi izan dizkiote Gazte Asanbladakoek, aurtengoa izango baitu azken urtea. Egingo den bazkarirako txartelak salgai daude jadanik, Sendi Ekin-tza eta Atari Tabernetan.

EGITARAU ▶

EKAINAK 15, OSTIRALA

19:30. Txupinazoa jaiei hasiera emateko. Ondoren, Triki-Poteoa plazatik.

21:00. Barrikotea izango da Gaztetxean.

23:00. Kontzertuak plazan: Etsaiak eta Des-Kontrol taldeak.

EKAINAK 16, LARUNBATA

16:30. Mus Txapelketa Sendi Ekintzan.

17:00. *Kixka* taldearen ikuskizuna plazan. Ondoren, Txokolatada eta Tortilada Gazte Asanbladaren boznan, Sendi Ekintzaren eskutik.

18:30. Alurr dantza eskolaren erakustaldia plazan.

23:00. Drindots taldearekin dantzaldia.

Gauean, Atarrabiako *Gas taldea* ibiliko da kalea animatzen.

EKAINAK 17, IGANDEA

08:00-14:00. Gaupaseroen poteoa.

14:30. Gazte bazkaria Xeplan, ondoren bertsolariak.

19:30. Loatzu musika eskolaren emanaldia herriko plazan.

21:30. Kontzertua Gaztetxean, EH Sukarra.

LIZARTZA ▶

«PPk eskatuta» alkate izango dela adierazi du Otaolak

Batzar Nagusietarako hautagaiak Eibarren zinegotzi kargua utziko duela esan du




Regina Otaola Tolosan. n. u.

A. IMAZ

Regina Otaolak (PP) Eibarko Udaleko zinegotzi lekua utzi eta Lizartzan alkatetza hartuko duela jakinarazi zuen atzo, Eibarko udaletxean egindako prentsaurrekoan. Alkate-tza hartzeko «alderdiak eskatu» ziola onartu zuen eta «ardura desberdin» bat bezala ikusten zuela gaineratu zuen, hauteskunde hauetan Gipuzkoako Batzar Nagusietara Alderdi Popularraren zerrendaburu eta Eibarko Udalerako zinegotzi bezala irten den 55 urteko eibartarrak.

Lizartzako Udalerako bi zerrenda aurkeztu ziren hauteskundeetan. EAE-ANVrena eta kanpotarrez osaturiko Alderdi Popularrarena. Lehenera Espainiako alderdien legea aplikatu zitzaion, eta herritarrez osatutako zerrenda bakarria ilegalizaturik gelditu zen. Hauteskundeetan Alderdi Popularrak 27 bozka lortu zituen, «baliozko botuen %5 a gaindituaz». Boto zuriak 142 izan ziren eta EAE-ANVren zerrenda izan zen bozkatuena, 186 botorekin. Regina Otaolaren esanetan, «gu izan ginen zerrenda aurkeztu genuen alderdi bakarra. %5 gainditu genuenez, eskainuetara iritsi gara». EAJ eta Joseba Egibarri, ekainak 16 bitarteko alkateari, «nahi zutena lortu eza» leporatu zien Otaolak. Izan ere, PPk alkatetza ez lortzeko Egibarrek boto zuriz bozkatu behar zela esan zuen.



Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 65 87
Sakelakoa: 669 368 994

<p>Amasa. 124m²ko etxebizitza. Egoera oso onean. Altzari eta guzti dituela.</p> <p>Anoeta. Berriki eraiki eta kanpoaldera begira dagoen etxebizitza salgai. Garajearekin eta altzariz hornituta.</p> <p>Anoeta. Harrizko baserrian 90m²ko etxebizitza salgai. Berritzeko.</p> <p>Betelu. Hiru logelako etxebizitza. Egongela, sukaldea, bi bainugela, terraza eta altzariz hornituta.</p> <p>Ezinhobea.</p> <p>Donostia. Mandasko duke kalean</p>	<p>etxebizitza salgai dago atikorekin. Prezio ezberdinak. Eraberritua.</p> <p>Ibarra. Bi logelako etxebizitza. Eraberritua. Plazaren inguruan.</p> <p>Irura. Etxebizitza atikoan. Hiru logelakoa. Sartzeko moduan.</p> <p>Legorreta. Ostalaritzako negozioa salgai.</p> <p>Tolosa. San Esteban auzunean, bi gelako etxebizitza, igogailuarekin eta erabat berritua.</p> <p>Tolosa. Zumalakarregi kalean, lehenengo solairuan 105 m²ko etxebizitza.</p>	<p>Tolosa. Pedro de Tolosa. 122 m²ko etxebizitza, garajea eta trastelekua.</p> <p>Tolosa. Berazubín, laugarren solairuan eraberrituta etxebizitza. Igogailu proiektua onartuta.</p> <p>Tolosa. Berazubi auzoan, laugarren solairuan etxebizitza, eraberritua.</p> <p>Tolosa. Gernikako Arbolan, 35 m²ko merkataritzarako lokala, 35 m²ko sotoarekin.</p> <p>Tolosa. Agintari kalea. Bi logelako etxebizitza. 70 m².</p>
---	--	--

LEITZA ▶ KIROLA

Euskal Selektzioaren Egunaren 9. edizioa igandean egingo dute

Esait egunaren 9. edizioa atzo aurkeztu zuten Donostian, ondorengo lemaekin: 'Ekin eta ekin, elkarrekin aurrera egin'



Mikel Urkola, Itziar Arratibel eta Igor Aldaia, atzo Donostian egindako aurkezpenaren. HITZA

NAIARA GARZIA

Igandean Euskal Selektzioaren Egunaren bederatzigarren edizioa ospatuko dute Leitzan *Ekin eta ekin, elkarrekin aurrera egin* lemaekin eta honen aurkezpena atzo egin zuten Donostian. Bertan izan ziren

Itziar Arratibel (Esaiteko lehen-dakaria), Mikel Urkola (Esaiteko kidea) eta Igor Aldaia (Leitzako Esaiteko laguntzailea). Aldaia azaldu duenez, «zenbait urtetan jende asko bildu da, beste batzuetan ez hainbeste». Oraingoz, 200 pertsonentz prestatu dute bazkaria.

1999. urtean Oiartzunen ospatu zuten lehenengo Euskal Selektzioaren Eguna eta honen ondoren beste zazpi etorri dira: Bilbon (2000), Tolosan (2001), Arbizun (2002), Senperen (2003), Agurainen (2004), Zarautzen (2005) eta Algortan, lehenengo urtean. Atzo aurkez-

penean azaldu zuten bezala «orain arteko egunak izan diren bezala aurtengo hau ere, egun osoko jaia eta aldarrikapen eguna izateko asmoarekin antolatua izan da. Jaia bai baina aldarrikapena ere bai. Hain zuzen, herri honek bere selektzio ofizialak lortu arte, inoiz baino zentzu gehiago duelako ofizialtasuna aldarrikatzen jarraitzea. Helburu horiek inoiz baino baitzen Esait orain 11 urte».

Egindako bidea

Honetaz gain, 11 urte hauetan egindako bidearen inguruko gogoeta ere egin zuten: «Hamaika urte hauetan denetarik egin dugu euskal selektzioaren aldeko aldarrikapena lau haitzetara zabaltzeko helburuarekin, mahai inguruak antolatu, hitzaldiak eta prentsaurrekoak eman, ekimen desberdinak prestatu: selektzioaren aldeko lasterketak, selektzioaren aldeko mendi-martxak...». Baina hau guztia ez dela «nahikoa» azpimarratu zuten. «Hala ere ez da nahikoa izan, oraindik herri honek ofizialki ez duelako nazioarteko txapelketa ofizialetan parte hartzeko aukerarik eta oraindik, herri honek ez duelako lurralde zatiketaren gainetik, federazio nazionalak sortzea lortu». Azkenik, «etsipena alde batetara utzi eta lanean jarraitzeko garaia» dela esan zuten. «Heldu diezaiozun erronkari, egin dezagun bakoitzak bere arlotik ofizialtasuna lortzeko eta Euskal Herriko federazio nazionalak sortzeko egin dezakeguna. Lanaren bidetik etorriko baita egun aldarrikatzen ari garena. Lana eginda lortuko baitugu herri honek nahi duena».

HITZA ere Leitzan

HITZA ere Euskal Selektzioaren Egunean Leitzan izanen da. Egun osoan zehar HITZAko postu bat egonen da egunkari honetako materialarekin. Hone-taz gain, arku puzgarri baten bitartez Euskal Selektzioaren Egunari bere atxikimendua azalduko dio HITZAK.

LEITZA ▶

Jose Mari Esparzaren hitzaldia gaur Aurreran

'Cien razones por las que deje de ser español' liburua izanen du hizpide

N. GARZIA

Gaur iluntzeko 20:00etan Jose Mari Esparza Txalaparta argitaletxeko editoreak berak idatzitako liburuaren inguruko hitzaldi-mahai inguru eskainiko du, Aurreran.

Hauex da argitaletxeak Esparzaren liburuaren inguruan egiten duen azalpenaren zati bat: «azken 40 urteetan burututako esfortzuen gainetik, oraindik ez dugu etorkizunean gure existentzia bermatzeko duen muga pasa. Globalizazioaren pean gureak bezalako nazio eta hizkuntzak desagertuko dira, baleak edo Amazonia bezala».

LEITZA ▶

3 erakusketa antolatu dituzte Kultur Astea dela eta

N. GARZIA

Kultur Astearen barruan hiru erakusketa antolatu ditu Kultur Taldeak.

Ihoteen inguruko argazki zaharren erakusketa udal-txean ikus daiteke, 18:00etatik 19:30era, larunbatera arte. Udaletxean ere eskularen erakusketa jarri dute, urtero bezala herriko emakumeek. Aurreran, aldis, pintura erakusketa ikus daiteke.

IX. EUSKAL SELEKTZIOAREN EGUNA ▶ EGITARAUA

Aurten *Ekin eta ekin, elkarrekin aurrera egin* lemaekin ospatuko da Leitzan IX. Euskal Selektzioaren Eguna.

EKAINAK 10, IGANDEA

10:30. Euskal Selektzioaren Egunaren hasiera ikurraren igoerarekin: txalaparta, txistulariak, dantzariak...

11:00. Ekitaldia Esait, Udala eta Udalbiltzako ordezkariekin.

11:30. Herri kirolak/Euskal Kirolak.

▶ Nafarroa, Lapurdi eta Gipuzkoa herrialdeen arteko lehia.

12:00. Xakea.

13:00. Pilota partidua. Neskek paletaz ariko dira.

14:30. Bazkari herrikoia bertsolariekin (zikiroa).

▶ Txartelak salgai daude, Torrean eta Maimurren.

16:30. Zakur erakustaldia, Kai Argi etxearen eskutik.

17:30. Pilota partidua eskuz.

19:00. Musika giroa alaitzeko.

11:30-13:30/16:30-19:30. Haurrentzako puzgarriak.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAn jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAK GIPIZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Tel.: 943 65 56 95

hilberria ▶

Jose Leunda Lasa

JAUNA

(Trinidad Muñoaren alarguna)

EKAINAREN 4an hil zen, 90 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—



Seme-alabak: Antonio, Izaskun eta Ramon Rodriguez, Martin eta Axun Atxega, Manuela eta Jacinto Lopez; bilobak: Maider, Leire, Onintze, Beñat, Nerea eta Iker; koinata: Agustina Lasa; ilobak, lehengusak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde ototz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezela GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, CORPUS CHRISTI parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Almirante Rekalde 1 - 2. Ezk. oinarri ▶ Gorputz belia Tolosako Funeraria Vascongada Tanatorioan egingo da gaur goizeko 10:00ak arte.

Tolosan, 2007ko ekainaren 6an

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Ibarra. I. Maratoia Indoor izango da ekainaren 16an Belabietako kiroldegian, 17:00etatik 19:00etara. Izen-ematea, kiroldegian edo 943 671544 telefono zenbakian.

Leitza. Jose Mari Esparzaren *Cien razones por las que deje de ser español* libururuaren aurkezpena Aurrera elkartearekin, Leitza Kultur Astearen baitan.

Lizartza. Lizartzako udalak Uztaleko ludoteka antolatuko du, 3-12 urte bitarteko umeentzat. Apuntatzeko epea Ekainak 22 Udaletxean. Begiraleak ere behar dira.

Tolosa. Sanjoanetako zezenketa ekainaren 17an Jesulin, El Cordobes eta Rivera Ordoñez toreatzaileekin. Sarrerak salgai Asteasuara, Fronton, Orue, Cantabrico eta 66 tabernetan eta zezen-plazan.

Tolosa. La Jara Extremadurako etxeak irteera antolatu du Toledora ekainaren 16 eta 17rako (Asteburuan). Prezioa: 140 euro (pentsio osoa 4 izarreko hotelean). Izen-ematea, La Jaran (675 70 76 19).

Tolosa. Galtzaundin Euskara Taldeak Txilipurdika ludoteka antolatu du 3 urtetik 10 urtekoentzat, uztailearen 2tik 31ra, 09:30etik 13:30era. Izen-ematea, Galtzaundin (Nafarroa Etorbidea 6, behea. 943 655004). Begiraleak ere behar dira.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Lekunberri. Mendia, B. Aralar, 25. 112.
Tolosa. Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitza errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
 20:00-21:00. Irauli uhinak.
 21:00-23:00. Bide okerretik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Eneko Lasa Espainiakora doa

ALEGIA ▶ Amuarrain eta izokinen modalitatean joango da jubenilen mailan parte hartzera, eta hilaren 28an eta 29an Cuencara (Espainia) joango da

NEREA URBIZU

Eneko Lasa Colomo alegiarra ez da berria gurean: ibaietako arrantzan abila dela erakutsi du berriro ere. 13 urte ditu, eta datorren hilaren 28an eta 29an Cañetara joango da (Cuenca, Espainia) Espainiako amuarrain eta izokinen modalitateko arrantza Txapelketara. Honetan, zartailu modalitatea erabiliko dute.

Gaztetxo hau proba honetara joatearen arrazoietako batzuk, Gipuzkoako azpi txapelketa eta Euskadiko Txapelketa ere, igandean Alegian azpi txapelketa izatea izan dira. Horregatik, Espainiakoan parte har dezake.

Txapelketa berez 14 urtetik 18 urte bitartekoentzat da, jubenilen mailakoa, hain zuzen, baina Eneko Lasa alegiarra 13 urterekin nabarmentzen denez, diputazioak emandako baimen berezi bat lortu du txapelketa ofizialean parte hartu ahal izateko.

Txapelketa honetan arrantzatutakoaren kopurua eta hauen tamaina hartzen da kontuan. Igandean, Alegian Oria



Igandean lorturiko sariaren ondoren ateratako argazkia. HITZA

ibaian izandako txapelketan, berriz, euilaren modalitatea izan zen: amua, hortaz, desberdina da, Espainiakoan zartailuarena baita.

Hainbat urtetan txapeldun

Dagoeneko 2003. urtean, 9 urterekin, Eneko Lasak irabazi zuen txapelketaren bat. 2005ean, 2006an, 2007an... eta maila berdina mantenduz gero, aurrerantzean ere txapelketa gehiago irabazteko gai izango da.

Jaia Laia eta berriaren eskutik
Fermin Muguruzak prestatutako musika bilduma bikaina

Gaztetxoak eta helduak
Elkarrekin dantzatzen

'Musika Munduko Jolastokian'

- EUSKAL HERRIA... ary eta Berri...
- JAMAICA... with Tej...
- EUSKAL HERRIA... song...
- LIVERPOOL... song...
- KUBA... Travesía migra...
- HEGOAFRIKA... song...
- NEW ORLEANS... song...
- HEGOAFRIKA... song...

Maiatzaren 5etik aurrera larunbatero disko bat kioskoan

berria + 5,30 €

Aukera ezazu, **BIZI EUSKARAZ berria**

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.

hitza
 agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...